

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

4642

EBAZPENA, 2022ko urriaren 17koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Enplegurako Lanbide Heziketako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntzako estrategia-ekintzak egiteko laguntza ekonomikoen 2022ko ekitaldirako deialdian aurreikusitako ebaluazio-batzordearen osaera.

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntzako estrategia-ekintzak egiteko laguntza ekonomikoen 2022ko ekitaldirako deialdiaren 11. artikulua (2022-08-29ko EHAA), prozedura eta ebazpena arautzen dituenak, 3. apartatuan ezartzen du, eskabideak aztertu eta ebaluatzeko aldera, ebaluazio-batzorde tekniko bat sortuko dela.

Batzorde hori honako lanpostu hauek osatuko dute, eta, horiek ez badaude, haien ordezkoez:

- Enplegurako Lanbide Heziketaren zuzendaria.
- Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko arduraduna.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikari-profila duten hiru pertsona, berariaz izendatuak; horietako batek idazkari-lanak egingo ditu, eta hitza adierazteko zein botoa emateko eskubidea izango du.

Aipatutako deialdiaren 11. artikulua araberan, ebaluazio-batzorde hori da behin-behineko ebazpen-proposamena egiteko arduraduna.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 49.2 artikulua dioenez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da dirulaguntza emateko proposamena egiteko ardura duten organoen osaera.

Hori guztia ikusirik, hauxe

EBAZTEN DUT:

Aditzera ematea ebazpen honetan aipatzen den deialdiaren 11. artikuluan aurreikusitako ebaluazio-batzordearen osaera:

Batzordeburua:

- Juan Carlos Ibarrola Sáenz de Ugarte, Enplegurako Lanbide Heziketako zuzendaria.

Idazkaria:

- Javier Armaolea Juaristi, Enplegurako Prestakuntza Zerbitzuko teknikaria.

Bokal titullarrak:

- Mari Carmen Vea-Murguía Basterra, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko arduraduna.
- Eduardo Campo Guillerna, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.
- Joseba Larrañaga Osinalde, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.

2022ko urriaren 27a, osteguna

Ordezko bokalak:

- Jone Irizar Ariceta, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.
- Ernesto Castaño Martínez, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.
- Veneranda Andrés Andrés, Enplegurako Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria.

Ebaluazio-batzordea balio osoz eratutzat joko da batzordeburua eta idazkaria (edo haien ordezkioak) eta gutxienez kideen erdiak bertaratzen direnean.

Batzordeburua ez badago, bokaletako bat izango da batzordeburu, arestian aipatutako hurrenkeran.

Idazkaria ez badago, bokaletako bat izango da idazkari, arestian aipatutako hurrenkeraren alderantzizkoan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 17a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Enplegurako Lanbide Heziketako zuzendaria,
JUAN CARLOS IBARROLA SÁENZ DE UGARTE.